

*MULTIMEDIA TESTUEN ESTRATEGIA LINGUISTIKOAK*

## **ZuZeU** ALBISTARIAREN ANALISI SOZIO-PRAGMATIKOA



**EITB/EHU Multimedia eta Komunikazioa Masterra**

**2011ko otsaila**

Txomin Lasarte Azkarate

[toxua@hotmail.com](mailto:toxua@hotmail.com)

[txomin.toxua@gmail.com](mailto:txomin.toxua@gmail.com)

## AURKIBIDEA

<b>Ezaugarri orokorrak</b>	3
Hedabide-mota	3,4
<i>Zuzeulari, Gugeulari.</i>	4,5
Historia eta helburuak	5,6
Hainbat eredu	6,7
Erabiltzaileak eta erabilera arauak	7
Erabiltzaileak	7
Erabilera arauak	8,9
<b>Dimentsio soziolinguistikoa</b>	10
Euskararen egoera soziolinguistikoa: zenbait abiaburu	10
Zer egin, nork eta zergatik	11
Edukiaren indarra	11,12
Multimediatasuna, elkarreragina eta hipertestua	12
Pausu bat normalizazio bidean	13
<b>Dimentsio pragmatiko funtzionala</b>	14
Komunikaziorako estrategiak	14
Komunikazio eredu berritzalea	14,15
Elkarreragiteko estrategiak	15
Kolore korporatiboa eta logoa	15,16
<b>Testu dimentsioa</b>	17
Testu prozesamendua eta erreperitorioa	17,18,19,20
Testua eta elementu grafikoa	20
Zuzeu eta sare sozialak	20
<b>Estiloa</b>	21
Hizkuntza ereduak: erregistroa, hizkuntza-maila eta moldeak	21
Erreperitorio irekia: testualtasun heterogeneoa eta kalitatea	21
Hizkuntza-ereduaren egokitasuna	21
Ezarpen/garapen linguistikoa formatu berrietan	22
<b>Bibliografia</b>	23

## 1. Ezaugarri orokorrak

### 1.1. Hedabide-mota

[Zuzeu.com](http://Zuzeu.com) albistari horizontal-digitala 2009ko apirilean jarri zuen martxan Xoraturikan Elkarte Mugatuak (XEM). Herritarren kazetaritza, kazetaritza partehartzailea eta kazetaritza horizontala bezalako ereduak lotu daitezkeen interneteko ataria da Zuzeu. Hau da, bertan izena ematen duen **erabiltzaileak** (“zuzeulariak” eta “gugeulariak”) **albisteak interneten euskaraz publikatzeko aukera ematen duen agerkari digitala da**. Erabiltzaile euskaldunak albisteak eta iritzi artikulak euskaraz publikatzeko lekua. Baina Zuzeu hori baino gehiago ere bada.

Zuzeun bertan, zenbait azalpen bilatu ditzakegu bere sorreraren, helburuaren eta egitura orokorraren inguruan:

Zuzeu albistari digitala da, Internetzale euskaldunok munduari begiratzeko leiho moduko bat. 2009ko Apirilean jarri du abian XORATURIKAN ELKARTE MUGATUA (XEM) enpresak, berau **irabazi asmo gabeko ekimena** delarik.

Blogen blog moduko bat ere izan nahiko luke ZuZeuk, nor bere aldetik ibili beharrea, elkarren ondoan hobeto gaudelakoan.

Sustatu.com-en honela jaso zen zuzeu albistariaren jaiotza:

[Zuzeu.com](http://Zuzeu.com) albistegi digital euskalduna gaur ireki da. Gugeu enpresa berriak sortutako ekimena da, irabazi asmo gabekoa. Ematen du edukia osatuko dutela bertan argitaratutako albisteak eta haien inguruko erantzun eta iritzi trukeak, eta baita beste toki batzuetako edukietarako estekek. Begiraleak izeneko kolaboratzaile talde bat dute, eta irakurleen partaidetza ere espero dute, izena emanda edo anonimoki.

Zuzeu Xoraturikan Elkarte Mugatuaren ekimenez jaiotzen da, eta elkarte hau izango da era berean ZuZeuren kudeaketa ekonomikoaz arduratuko dena. Erredakzio talde batek ere lan egiten du Zuzeun, albisteak publikatzea dituzte eta *zuzeulari/gugeularien* publikazioak kudeatzea da (lehen orrialderako egokiak diren publikazioak aukeratu, argazkiak jarri erabiltzaileak jarri ez badio e.a.) euren lana. Hala jasotzen da zuzeun:

Hala ere XORATURIKAN enpresa, diru iturri desberdinak bilatzen saiatuko da, ZuZeuk garatzen eta hobetzen joan dadin: erredakzioa handitzen, albiste agentzia eta argazki eta bideo databaseetan harpidetzak egiten, tresneriaz hornitzen.... Asko baitu ibiltzeko ZuZeuk, eta horrexetan ahaleginduko dela hitz ematen du XORATURIKAN enpresak.

Baina bada izen propio bat Zuzeuren sorreran nabarmendu behar dena. **Hasier Etxebarria kazetari eta idazlea**. Agerkariaren sortze lanean bereziki aritu da Etxebarria,

eta Zuzeuren zuzendaritza lanak egiten jarraitzen du orain ere. Etxeberriak berak, Luistxo Fernandez eta sustatu.com azpimarratu zituen albistari berriaren sorreran lagundu izanagatik. Horrela jaso zuen Sustatuk:

ZuZeu sortu duen Gugeu enpresaren atzean Hasier Etxeberria idazle eta kazetaria dago, ZuZeuren berri ematen duen Komunikariak foroko mezu honetan irakurri daitekeenez. Sustatu eta Sustatuko editore Luistxo Fernandez ere aipatzen ditu Etxeberriak hor, ekimen hau Sustaturekin elkarlanean abiatu nahi izan zuela, baina ezinezkoa izan dela partaidetza hori. "Behingoagatik euskarazko sarearen tripetan kompetentzia dagoela dirudi", zioen Hasier Etxeberriak Komunikariak-en.

Hasier Etxeberriaz aparte, bada beste izen azpimarratzea behar dena. Mikel Lasa, egun Zuzeuko editorea. [Periodismociudadano.com](http://Periodismociudadano.com) atarian [elkarrizketa interesgarria](#) egin zioten 2010eko abuztuan. Zuzeuko dinamika, helburuak eta etorkizuna izan zituen hizpide besteak beste.

**Lehen esan bezala, Zuzeu albistari bat baino gehiago da. Euskarazko blogen bloga ere izan nahi du, euskal komunitatearen barruan dauden blogarien bilgune bat,** weblog estiloko agerkaria. Aipatu, baita ere, publikazio paraleloa ahalbidetzen duela, jatorrizko blogean bata eta Zuzeun bestea, euskal blogarien lanak biltze aldera. Kazetari sentitzeko aukera ere bada Zuzeu. Norbere lanak publikatzeko gunea, erakustera emateko lekua, izen bat ezagutzera emateko erakuslehioa, hala nahi bada.

Eta blogak aipatuz, [Joxe Aranzabal historialari, kazetari, irakasle eta blogariaren bloga](#) (Goiena.neten barruan; *faroa* du izena) aipatu nahi nuke jarraian. Zuzeuren sorrera horrela ikusi zuen Aranzabalek:

Atzo izar bat gehiago agertu zen, erabat berria, euskarazko komunikazioaren esparruan: Zuzeu albistari digitala. Harritzekoa bada ere, [salbuespenak salbu](#), sarean ez nuen igarri bozkario berezirik, euskaraz bizi garenon informazio esparrua zabalduko delako ([Sustatun](#), adibidez, albisteak ez zuen erantzunik jaso), baina bai zelabaiteko kezka, [Hasier Etxeberria](#) ZuZeu albistariko bultzatzaile nagusiak Komunikariak sarean idatzi eta Sustatun bertan agertutakoagatik: "Behingoagatik euskarazko sarearen tripetan kompetentzia dagoela dirudi".

## 1.2. Zuzeulari, Gugeulari.

Zuzeun informatzaile moduan parte-hartzeko, albisteak publikatzeko, bi bide daude. Bata da norbanakoentzat eta bestea kolektiboentzat. "Zuzeulari" eta "Gugeulari" izenez ere ezagutzen dira: lehenak dira pertsona bakarrak, albistea euren izenean (edo izengoitian) publikatzen dutenak (Zuzeun benetako izenak jartzea gomendatzen da, informazioaren errepresentazioa baliotze aldera, kalitatearen seinale omen), eta bigarren taldea dira "gugeulariak", enpresa edo kolektibo baten izenean informazioak partekatzen dituztenak.

Bai talde batekoak zein bestekoak hazten ari dira. Une honetan 397 *zuzeulari* eta 95 *gugeulari* zenbatu daitezke Zuzeun. Hala ere, ez dira hauek Zuzeun albisteak publikatzen dituzten bakarrak. *Begirale* izena ematen dioten eta Zuzeuko *erredakzio-taldea* osatzen

duten langileak kontratatzen ditu Zuzeuk, jardunaldi erdian lan egiten dutenak. Hauen zeregina da *zuzeulariek* publikatzen dituzten albisteak aukeratu, atondu eta lehen orrialdera pasatzea eta eurek ere albisteak sortzea. Orobat gaurkotasunarekin loturiko gaiak lantzen dituzte begirale hauek.

### 1.3. Historia eta helburuak

Orain gutxi jaiotako agerkaria da Zuzeu, epe laburrean erabiltzaile asko bildu dituena inguruan, eta kazetaritza parte-hartzailearen erreferente nagusia (eta estilo honetan bakarra) euskal komunitatean.

Geldirik ez dagoen ataria da. Horren adibide da sortu eta zapi hilabetera diseinua aldatu izana. Honek, zenbait aldaketa ekarri zituen: **iruzkinak onespentik gabe egiteko aukera eta sare sozial moduko funtzionamendua besteak beste**. Hipertestualizazio lana errazteaz aparte, horizontaltasuna indartzeko ahalegina erakusten du honek, erabiltzaileen arteko elkarreragina bultzatzeko saiakera.

Zuzeu, nolabait, Euskal Herrian bete beharreko hutsune bat betetzera dator. Egitasmo ausarta delarik ezin uka, **Hasier Etxeberriak berak esan bezala, kasik ezinezkotzat jotzen zuten halakorik hasiera batean**, eta berak eta Luistxo Fernandezek zailtasunak zailtasun aurrera egitea erabaki zuten. Gerora, Luistxo Fernandezek bere bidea hartu zuen, eta Hasier Etxeberriak berea egitea erabaki zuen Zuzeuren barruan.

**“Erabiltzaileek eurek albistari digital bat egitea”, hori da Zuzeuren helburua, agerkarian bertan jaso, “horizontalki sare sozialak sortuz”**. Kazetaritza partehartzailearen adibide moderno bat dela esan daiteke, publikaziorako bidea erraztu nahi duena eta erabiltzaileen arteko elkarreraginari ateak ireki dizkiona, salbuespen bakar gisa, giza-eskubideen onarpen eza izanik.

Duela gutxi, Zuzeuk, 2010eko audientzia datuak kaleratu ditu. Iruzkin batean, bisitarien iruzkinei erantzunez, agerkariaren helburuei buruzko aipamen hau egin zuen:

Euskara hedatzea eta komunikazioaren bidez euskaldunok saretzea dugu helburu. Horretarako sortu zen ZuZeu. Urruti gaude, ordea, helburutik. Ekitea eta jarraitzea baizik ez daukagu hemen.

2010eko abenduan beste pausu bat eman zuten papereko Zuzeu argitaratzean. 122 orrialdeko alea, Durangoko azokarako espresuki ateratakoa, eduki anitza eta entretenigarria jasotzen duena. Hona hemen Hasier Etxeberriaren hitzak:

“Papereko ZuZeu hau eskuetan hartzen duen edozein euskaldunek berarentzako moduko irakurgairen bat aurkituko duela uste dugu. Etengabe ahalegintzen gara horretan zuzeu.com albistarian. Hemen bezala han, saiatzen gara euskaldunon arteko sare proaktiboa ehuntzen eta gorputzten. Geuk bezalaxe idatz eta argitara dezakezu zuk zeuk ere. Edo gutxienez iritzia eman edo zeuri bururatzen zaizuna. Zeuk nahi duzuna egiteko dago zuzeu.com, baita ixilik geratu eta tribukideari bazter batetik begiratzeko ere. Geure txikian, kolore askotakoa baikara euskaldunok, zer gero.”

Hona hemen ale horren azalaren irudi bat:



#### 1.4. Hainbat eredu

"OF THE PEOPLE, BY THE PEOPLE, FOR THE PEOPLE". Hauxe da atzerriko atari batean bilatzen dugun lema. [Indiako agerkari honetan](#), Zuzeun bezala, kazetaritza partehartzailea da oinarri eta izateko arrazoi.

Baina hain urruti joan beharrik ez dago. 2001etik interneten dagoen hemengo albistegi bat aipatzekotan, [Sustatu](#) izendatu beharko genuke. "Weblog kolektiboa, non artikulua nagusiak idazteko aukera irakurleen esku ere badagoen", azaltzen dute bertan.

Berrito atzerrira jota, nahitaez aipatu beharreko atari bat [Ohmynews](#) da. Japoniarrez, korearrez eta ingelesez interneteko atariak sortuta, zabalkunde eskerga hartu duen albistaria da. [Wikipedian](#) "kazetaritza demokratikoa" eta "kazetaritza 3.0" bezalako ereduekin lotzen da:

El proyecto, que tiene ediciones en coreano, ingles y japonés es considerado uno de los hitos del llamado [Periodismo 3.0](#), *periodismo participativo*, *periodismo ciudadano* y que

incluso se ha llegado a llamar *periodismo democrático*, y se encuentra entre los sitios de internet más visitados de su país.

La idea central de este medio de comunicación es que los propios lectores sean los autores de las noticias. Para ello, *OhmyNews* tiene desarrollado un sistema de registro que le brinda al lector la posibilidad de enviar y leer sus noticias.

Horrelako ereduak atzerrian izan arren, Euskal Herrian egoera soziolinguistikoa tarteko, ez zirudien erraza halakorik aurrera eramatea Hasier Etxeberriak azaldu duen moduan.

## 1.5. Erabiltzaileak eta erabilera arauak

### 1.5.1. Erabiltzaileak

Aspaldian asko entzuten den kontua da Zuzeu hazten ari dela, indar eskerga hartzen ari dela, bisitari asko gerturatzen duen albistaria dela e.a. Datuok kuantifikatze aldera, Zuzeuk 2010eko audientzia datuak kaleratu ditu. Publikazio horretan, zuzenean datuetara jo aurretik, honakoa azaltzen zuten: **“Ez dira ez asko eta ez gutxi, ez handi eta ez txiki, direnak dira, 2010 urteko Urtarrilaren lehenetik, urte bereko Abenduaren 31. egunera bitartekoak”**. Datuok eskuratzeko Google Analytics erabili da.

**2010ean orotara egindako bisitak 387.603 izan dira, eta ikusitako orri kopurua 871.031.** Erabiltzaile desberdin absolutuak 147.530, eta bisitari horiek batez beste ia hiru minutu egiten dute Zuzeun, 2 minutu eta 50 segundu zehazki. Bisitarien %42 (eta goraka) beste webgune batzuetatik zuzentzen da Zuzeura. Facebook, twitter eta Zabaldu aipatzen dira horien artean. Zuzenean Zuzeura joandakoak ia herena dira, %30a; eta bilatzaileetatik joandakoak %25 inguru.

Hilero 20.000 erabiltzaile sartzen dira Zuzeun, 1.500 eta 2.000 artean astegunean, eta zerbait jeisten da asteburuan. 2010eko abenduko datuei erreparatuz bakarrik, 40.000 bisita baino gehiagi izan zituen 90 herrialde desberdinetatik; gehienak Espainia eta Frantziatik. Horien atzetik Erresuma Batua, AEB eta Alemania, hurrenez hurren.

Baina Zuzeuko bisitariak eta bisita kopuruak aipatuta, ezin albo batean laga Marcos Jutsuriaga Zuzeulariak publikatutako albistea. Iñaki Perurenari Manuel Redondok (ez dakit kazetaria den ala ez, Zuzeuko zenbait iruzkinetan ezetz esaten du askok) egiten dion elkarrizketa agertzen da. Albiste honek kasik milioi erdi bisitari izan zituen 2011ko urtarrila orduko. Iruzkin bidezko erabiltzaileen elkarreragina ere azpimarratu behar da, 138 iruzkin izan baititu orainarte. Hala ere, bisita kopurua zehazterakoan, datuak zehazte aldera, soilik laurdena direla benetako bisitak aipatu behar, hala jasotzen du Zuzeuk ere:

Estatistikak hobeto ulertzeko, ikasgaia eman digu oraintxe K. gure informatikariak: ez dugu pentsatu behar bisita bakoitza “benetan” gertatu denik. Alegia, albistea ireki duten pertsoenez gain, robotak daude eta gure “begitxoaren” zenbagaillak, ez ditu bereizten. Beraz, **Googlen eginiko bilaketak, twitterren eta facebooken eginiko esteka aholkuak... denak zenbatzen dira bisita bezala. Hala bada, pentsa dezagun, 100.000 “bisita” diogunean, laurdena edo, izango direla “benetakoak”**. Hala ere, kristoren poza ematen du, oraintxe bezala 108.013 bisita markaturik ikusteak. Eta gorantza.

## 1.5.2. Erabilera arauak

Zuzeu albistari horizontala bada ere, euskaraz mintzo direnen partekatzea bultzatu nahi badu ere, ez da edozelan informazioa publikatzeko agerkaria. Erabilera arauak zehazten dira Zuzeun, erabiltzaileek bete beharreko araudi bat albisteak publikatu nahi badute. Bertan aipatzen diren arlorik azpimarragarrienak, agian, honakoak lirateke:

- 1.- Zuzeun egiten diren sarrera guztiak Creative Commons lizentziarekin egiten dira.
- 2.- Sarrera guztiak euskaraz behar dute izan (salbuespen gutxi bilatu baditut ere, bada bat nabarmentzekoa, [frantsesez idatzitako abesti bat da](#)).
- 3.- Baldintza bakarra jartzen da arlo politikoan: “giza eskubide guztiak guztientzat”.

Hona hemen, bere horretan, erabilera arau guztiak:

### **ZuZeuren erabilera**

Zuzeu izenak adierazi nahi duen bezala, zuk zeuk ere baduzu lekua ZuZeun. Areago, zeure albiste-bide nagusi bihur dezazun nahi genuke, zeure nabigatzailearen lehen orri bihurtuz, eta zeure eskutik albisteak eta iritziak jasoz. Zeure partaidetza gabe, ZuZeun ez da bideragarria izango. Nolabait esateko, erabiltzaileek egindako hedabide horizontala izan nahi du ZuZeuk.

### **Mugak**

“Giza eskubide guztiak, gizaki guztientzat” horixe du muga politiko bakar ZuZeun albistariak. Ulertu nahi duenak, uler beza. Eta euskaraz izatearena ere bai, jakina. Azken finean, Internetzale euskaldunok dugun hutsartea arintzea baitu helburu albistari honek. Adierazitako baldintzetan, mota eta kolore guztietako euskaldunen iritzien topaleku nahi luke ZuZeuk, euskaldunok ere kolore askotakoak baikara izan.

### **Edukiak**

ZuZeuk ez dauka oraingoz erredakzio zabal eta tinkorik. Bihar edo etzi diru sarrerarik balego, erredakzio talde bat antolatzen joatea da helburua. Ordura artean, XORATURIKAN enpresako giza baliabideen bitartez hornituko da ZuZeun.

Bestalde, betiere erabilera horizontal eta zabalaren bila, ZUZEULARI eta GUGEULARIEK ere, euren sarrerak argitaratuko dituzte hala nahi duten bakoitzean. ZUZEULARIAK norbanakoak dira, eta GUGEULARIAK, ostera, talde, enpresa eta erakundeak.

Horretarako dago bide hau. Sarrera hauek moderatu gabeak izango dira, eta egilearena bano ez da izango balizko erantzunkizuna.

### **Iruzkinek**

Bestalde, iruzkinak ere libre izango dira, baina posta elektronikoko bidez egiaztatu beharko da, benetan helbide horretatik etorritakoak ote diren. Hala ere, iruzkin ezegokiak, iraingarriak edo ezer onik ez dakartenak, era guztiz subjektiboan, ezabatu egingo dituzte ZuZeuko editoreek.

Azken finean, denok laguntzen dugunaren neurrikoa izango da ZuZeun. Ezer izango bada.

### **Sinadura**

Erabiltzaileak beti izango du nahi duen izenarekin erregistratzeko aukera, baina ZuZeuren eskaria da, ahal dela bederen, benetako izenarekin eta zentzunez jokatzeko. Biziki eskertuko den kontua da hori, ZuZeuren kalitatearen izenean.

### **Lege kontuak**

- Legeek agindu bezala, ZuZeuk beretzat bakarrik gordeko ditu erabiltzaileen aldetik jasotako datuak.

- ZuZeuk ez du zertan bat etorri bertan argitaratzen diren edukiekin, eta, ondorioz, ez du zertan erantzule izan beharrik ere. ZuZeuk komunikaziorako tresna horizontala izatea du egitasmo eta, beraz, egileena euren izanaren da erantzunkizuna, izatekotan.

- ZuZeun bere erredakzio taldeak zuzenki sortutako edukien erantzule baizik ez da.



- Erabiltzaileak, inplizitoki, argitaralpen baimenik gabeko materialik ez duela bidaliko/txertatuko onartzen du ZuZeurekin harremantzeko aurrebaldintza bezala. Zentzu honetan hutsegiterik balego, erabiltzailearena berarena litzateke erantzunkizuna eta ez, inola ere, ZuZeurena.
- Baldin eta balego, ZuZeuko editoreek baimenik gabeko material oro ezabatuko lukete, horretaz konturatu bezain azkar. Halaber, euren esku geratzen da sarrerak edertzea, hornitzea, egiaztatzea eta bertan egon daitezkeen okerrak zuzentzea.

### **Egile eskubideei buruzkoa.**

ZuZeu albistarian sortutako sarrera guztiak, Creative Commons lizentziapekoak dira.



Honek esan nahi du banatu, kopiatu eta zabaldu ahal izango direla ZuZeuren eduki guztiak, betiere bi baldintza onartzen badira: egilea eta jatorria aitortu, eta zabaltzerakoan lizentzia berdinarekin egitea.

### **Onarpena.**

Ulertu behar da, erabiltzaileak baldintza guztiok eta bakoitza onartzen dituela aurrez. Horrela izan ezean, ZuZeu ez erabiltzea eskatzen zaio.

## **2. Dimentsio soziolinguistikoa**

### **2.1. Euskararen egoera soziolinguistikoa: zenbait abiaburu**

Zuzeuko ezaugarri soziolinguistikoak parametro batzuren barruan kokatze aldera, gurea bezalako hizkuntza txiki honen egoera soziolinguistikoaz zenbait datu aztertzea interesgarria delakoan nago. Horretarako txosten hauek hartu ditut kontuan: *IV. Inkesta Soziolinguistikoa* (Eusko Jaurlaritza, 2006) eta *Euskara Hedabideetan* (Eusko Jaurlaritza, 2008).

- **Adineko jendea eta etorkin kopurua igotzen ari da Euskal Herrian.**
- **65 urtetik gorako biztanleria %50 igo da EAEn eta Nafarroan azken 16 urtetan.**
- **800.000 euskal hiztun daude Euskal Herrian.**
- **EAEn biztanleriaren %30.1 elebiduna da, %18.3 elebidun hartzailea eta %51.5 erdaldun elebakarra.**
- **Elebidun multzorik handiena 35 urtetik beherakoak dira.**
- **16-24 urte bitartekoen artean, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza euskara dutenak.**
- **Azken hogeitun urteetan 200.000 hiztun irabazi ditu euskarak.**
- **Euskaraz kontsumitzen dutenen kopurua ez da kontsumitzaile potentzialen neurrian igo; alderantziz, kontsumitzaile potentzial eta egiazkoen arteko aldea gero eta handiagoa da.**
- **Sektore estrategikoa dira nerabeak eta gazteak. Horiengan arreta berezia jartzea komeni da.**
- **Telebista eta internetek (orohar ikusentzunezkoek) garrantzi berezia dute euskararen irismenari dagokionean, batik bat gazte sektorean.**
- **Eduki entretenigarriak sortzea ona da euskararentzat.**
- **Aniztasuna eta arintasuna bultzatu behar dira euskal komunikabideetan.**
- **Hiriburuetako euskaldunei arreta berezia jarri behar zaie.**

## 2.2. Zer egin, nork eta zergatik

Zuzeu agerkari euskalduna da. Albisteak euskaraz sortu, partekatu eta sare sozialak eratzeko egitasmoa. Kazetaritza partehartzailea euskaraz egiteko ahalegina, eta emaitza onak ematen ari dena. Euskaldunon lehioa da Zuzeu, gure etxetik kalera begiratzeko modua, esteken bitartez beste kaleekin, beste hizkuntzekin harremanetan jartzen gaituena, “euskaldunak bai baitakizki beste hizkuntza batzuk ere”. Euskarazko komuniazioaren eredu berri baten egitasmoa da Zuzeu, ahalegin bat panorama soziolinguistiko konplexuan.

Euskal hiztunen kopurua hazten ari da Euskal Herrian, 200.000 azken hogeitaz urteetan, baina euskara ez da kontsumitzen. Euskarak hedabideetan duen presentzia azpimarragarria bada ere, hauen kontsumoa eskasa da. Horren adibide da EITB, inoizko audientzia daturik txikienak 2010ean izan dituelarik (beti ere kontsumo-neurtze sistematiko baten arabera).

Zergatik Zuzeu? Zergatik euskaraz? Bertan argi dute. “Euskara hedatzeko”, “euskaldunak sartzeko”, “euskaldunak elkarren ondoan aritzeko”. Beraz, informazio sortzaile euskaldunak, edukiak euskaraz sortu eta eduki horiek zabaltzeko.

Hala ere, elkarreragiteko orduan hizkuntza asko biltzen ditu iruzkinen bitartez. Frantsesez, ingelesez eta gazteleraz egindako iruzkinak aurkitzen ditugu Zuzeun, eta horren harira bere iritzia plazaratu zuen agerkariak [“Zuk zeuk nola jokatuko zenuke?”](#) izenburua eman zion publikazio batean. Azkenean, erdarazko iruzkin horiek mantentzea erabaki zen, erabiltzaile batzuk euskarazkoak ez ziren iruzkinak ezabatzea eskatu bazuten ere. Zuzeuk, egia esan, ez luke errez kontraesanean erori gabe erdarazko iruzkinak ezabatzea, ze Perurenaren bideoa gazteleraz egindako elkarrizketa da. Hala ere, erabiltzaileei euren iritzia emateko aukera eman zion Zuzeuk eta eztabaida bideratu zuen bi gauza batera lortuz: erabiltzaileen elkarreragina eta inplikazioa gai eztabaidatsu baten aurrean eta agerkariaren kezka azaltzea printzipioen balizko urraketa baten aurrean.

## 2.3. Edukiaren indarra

Zuzeun denetariko edukiak jorratzen dira: kirola, kultura, historia, pintura, zientzia, ingurumena, bertsolaritza eta abar luze bat. *Zuzeularia* libre da nahi duenaz hitzegiteko, nahi duen gaia aukeratzeko eta, mugak-muga, nahi erara idazteko. Eta idatzi dezake hemengoaz eta hangoaz. Informazioa kokatu daiteke Euskal Herrian, Euskal Herriko azken herriko azken tabernan, eta Dakarreko AEBetako kontsulatuan. Edukia librea da. Hala ere, Zuzeun nagusitzen diren gaiak euskal kultura, euskal gizartea eta euskararen arlokoak dira, euskaldunon hizkuntzari eta Euskal Herriari erreferentzia egiten diotenak alegia. Eta gai horiek duten indarra nabarmena da. Ez bakarrik publikazioen aniztasunean, baita kazetaritza generoaren aniztasunean eta gai hauek sortzen duten elkarreraginean ere. **Sare-sozial modura funtzionatzea lortzen du euskalgintzari lotutako gaiak ikutzen direnean.** Euskararekin, euskal ekanduekin eta euskal kulturarekin lotutako gaiak publikatzen direnean lortzen da sarritan elkarreraginik handiena. Eta adierazgarria da

erabat, ze erakusten du nolabaiteko lotura dagoela albistari honen printzipioen, *zuzeularien* printzipioen eta erabiltzaileen kezken artean. Diglosi egoeran dagoen hizkuntza gutxitu baten eta horrek sortzen duen kezka parametroetan sortu zen Zuzeu, eta parametro horiek jarraitzen dute izaten publikazio iturri eta elkarreragiteko elementu. Horren adibide dira, lehen aipatu dugun [Iñaki Perurera harri jasotzaileari egindako elkarrizketa](#) eta [Manex Ohienart historialariak euskara batuaren eraberritzearen inguruan idatzitako arikulua](#).

Baina eduki hauek norentzat dira? Euskaldunentzat badira, eta euskaldun ez direnentzat ere bai. Aurrerago aipatu dugu, 2010ean 90 herrialde desberdinetatik sartu zela jendea Zuzeun. Baina erabiltzaile guztiak euskaldunak al dira? Erantzuna ezezkoa da. Perurenaren bideoak, esaterako, erabiltzaile erdaldunak ere hurreratu zituen, eta iruzkinak ere idatzi zituzten hauetako batzuk, iruzkinak gazteleraz. Ingeleseztan eta frantseseztan idatzitako iruzkinak ere nahikoa ohikoak dira elkarreragin handia izaten duten albisteetan.

#### 2.4. Multimediatasuna, elkarreragina eta hipertestua

Multimediatasunari erreparatuz, Zuzeun nahikoa urria dela esan behar da. Nodo nagusia, eduki testualak eta irudiak betetzen du. Eta albisteen barrura jota ere, beste nodo batzuren barruan, eduki testualak du pisu nagusia, sarritan lehen nodoko irudi berak laguntzen diolarik. Beraz, Zuzeu eduki testualarengatik nabarmentzen den eta horrek ezaugarritzen duen weblog bat da. Mezu idatziak du garrantzia, *zuzeulariak* zer esan nahi duen eta besteek publikazio horretaz zer esaten duten, hori da Zuzeuren ardatza. Hala ere, albistean bideoa sartzeko aukera badago, eta irudia nahitaezkoa da.

Bideo eta irudi hauek guztiak, wegunearen goikaldean nodo desberdinetan gordetzen dira “argazkiak” eta “bideoak” ataletan. Aukera bi eskaintzen dituzte gainera: lehena, bideoak edo argazkiak bakoitza bere nodoan ikustea, eta bestea klikatu eta jatorrizko albistean ikustea, argazki edo bideo horiek ikustea baina euren jatorrizko kontestuan.

Eduki testuala nagusi den moduan, aparteko aipamena merezi duen gaia da elkarreragina. Iruzkinen bitartez erabiltzaileen arteko elkarreragina bideratzen da Zuzeu, eta iruzkin horiek egiteko erraztasun handiak ematen dituzte. Izena eta baliozko e-posta helbide bat jarrita nahikoa da albiste eta iritzi artikuluetan iruzkinak egiteko, eta horretxetan datza, hain juxtu, Zuzeuren gakoetako batek. Garaipen txiki bat beraz, parte-hartzeko formatuan asmatu izanagatik.

Hipertestualizazioa batez ere esteken bitartez ematen da. Eta esteken kontua kontrolatua dagoen arlo bat da Zuzeun. Albiste erdia publikatu eta beste erdia beste nonbaiten irakurtzeko gonbita egitea txarto ikusia dago Zuzeun. “Tribuari” eman egin behar zaiola esaten da (niri *zuzeulari* moduan esan didate adibidez), azken finean ez delako zure produktua saltzera joateko merkatua, euskaldunon bilgune eta sare sozial erabiltzaile baizik.

## 2.5. Pausu bat normalizazio bidean

Euskara normalizatu dadin pausu garrantzitsua da Zuzeu. Eredu partehartzailea, euskaldunon bilgunea, euskaldunon arazoez mintzatzeko lekua. Euskararen gaineko eztabaidak komunikazioa euskaraz sustatzeaz aparte, *zuzeulariaren* eta erabiltzaileen iritziak biltzeko aukera ematen du, eta funtzio hori ezinhobeto betetzen du Zuzeuk. Aurrez esan bezala, euskal kulturaren eta euskal hizkuntzaren gaineko eztabaida sakonak biltzen dituen tokia, publikazioen zati bat espreski gai horiei eskaintzen zaielarik.

Eztabaida linguistikoaren egokitasunaz asko hitzegin da. Hona hemen Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako Sailburuorde ohiaren iritzia (*XXI. Mende Hasierarako Hizkuntza Politikaren Oinarriak*, 2008; Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila):

Ez diogu beldurrik izan behar debetari, ez egiten ari garen gauzen eta daramagun bidearen azterketari ere (...), beti kontuan izan, hipotesi moduan badarik ere, egiten ari garen guztia ez dela agian on, edo ez dela agian egokien, edo ez dela agian zuhurren. Eta kontuan izan behar dugu, halaber, agian ez garela egin behar litzatekeen guztia egiten ari.

Errezeta berrien bilaketaren egokitasuna zalantzan jartzen du Baztarrikak. Aintzinakoen hobekuntza komenigarriagoa dela uste du:

Ez dugu uste kontua horrenbeste denik errezeta berrien bila abiatzea, mirakulu halako batzuen esperantzaz. (...) Normala denez, egin beharrekoa baita egiten ari garena hobeto egitea, gastatzen ditugun diruak hobeto gastatzea, oinarri eta printzipio nagusiek bere horretan jarraitzen badute ere lehentasunak berraztertu eta birdefinitzea, lan-ildoak birmoldatzea, eta, finean, hizkuntz politikari beste bultzada berri bat ematea, bide batez erakunde-arteko lankidetzaz eta agente ezberdinen arteko elkarlana sendotuz.

### 3. Dimentsio pragmatiko funtzionala

#### 3.1. Komunikaziorako estrategiak

Zuzeu internauta euskaldunak saretzeko, sare sozial modura funtzionatzeko helburuarekin sortutako egitasmoa da. Euskara munduan zabaltzeko eta “munduari” gure gelatik “begiratzeko lehio moduko bat”. Interneten informazioa bilatu eta sortu nahi duten euskaldunak “elkarren ondoan aritzeko”. Azken finean, dinamika berriak sortzeko formatu berri batean, baina hizkuntza zaharrean. Hizkuntza zaharberrituan, hobe esanda, erabiltzen den euskara estandarra baita, euskara batua. *Zuzeulariak* ia osotasunean erabiltzen duen forma hori da. Euskara estandarra eta edozeinek ulertzeko modukoa. Paradoxikoa da gainera, Zuzeun erabiltzen den euskara batu hori, erabiltzaileek erabiltzen duten hori, ezbaian jartzen dutela erabiltzaileek batzuk, euskararen eraberritzearen inguruko eztabaidak sortu direlarik. Aipatu baita ere, eztabaida hauetan euskara-maila desberdineko erregistroak erabili direla, hizkuntzalarien iruzkinak maila jasoagoa izan dutelarik.

Lehen aipatu dudan moduan, kasu gutxi batzutan erdarazko sarrera edo publikazioak egin dira, euskarazko izenburupean aipu bat frantsesez sartuta adibidez. Baina badirudi nolabaiteko justifikazio informazionala behar duela izan erdarazko sarrerak, bestela ez litzateke onartua izango.

#### 3.2. Komunikazio eredu berritzalea

Zuzeu planteamendu berri baten argitan eraikitako proiektu komunikatiboa da. Erabiltzaileak banaka baina denen artean eta denentzako edukiak sortzeko planteamendua. **Albisteak nahi erara sortu eta denen artean elkarreraginez hipertestu bat sortzeko eta sare-sozial estiloko dinamika martxan jartzeko proiektua da, parekorik gabekoa Euskal Herrian, eta hutsune bat bete duena euskal komunitatearen barruan.** *Kazetaritza herritarra* eta *kazetaritza parte-hartzailearen* eredia, euskaldunon kezka azaltzeko eta horien inguruan eztabaidatzeko aukera ematen duena eta praktikan jartzen ari dena, erabilera datu interesgarriak eskuratuz eta eztabaida emankorrak sortuz.

Euskarari eremu berriak eskuratzeko aukera, euskarriarekin baino gehiago komunikazio ereduarekin ematen zaio. Lehen esan bezala, euskal komunitatean uste ez zen eremu bat bete du Zuzeuk, galdekizun zena proiektuaren hasieran, eta egunero ia 2.000 bisita izaten ari dena (bisita erlatiboak dira, eta eztabaida piztuta dago gainera Zuzeun honen harira) une honetan.

Bestalde, *zuzeularien* publikazioetan aurkitzen dugun komunikazio eredu informaziozkoa eta pertsuasiboa izaten ari dira. Lehen orrialdera pasa diren **azken hogeik publikazioak aztertuta lortutako datuak hauek dira: 20tik 16tan eredu pertsuasiboa erabili da, eta bakarrik 4tan informazio hutsa.** Beraz, lagina kontuan hartuta (2011/02/24), publikazioen %80 hartzailea persuaditzeko helburuaz egiten da, eta %20 informatzeko helburuaz. Dena den, aipatu behar da, eredu pertsuasibo edo informazional osorik aurkitzea zaila dela, **sarritan aurkitzen da hibridazioa, hein handi batean informazioa biltzen duen albistea baina konbentzitzeko zertzelada batzuk integratzen dituena,** eta kasu hauek eredu pertsuasibotzat hartu ditut.

Honek gauza bat adierazten du: Zuzeuko erabiltzaileak gaien inguruko ikuspuntu bat eskaini nahi du, bere ikuspuntua, informazioari uko egin gabe, baina perspektiba pertsonal batetik. Hau, azken finean, elkarreragina sustatzen duen ezaugarria da, baina ez ezaugarri bakarra.

### 3.3. Elkarreragiteko estrategiak

Lehen aipatu bezala, Zuzeuk komunikatzeko leku bat bilatu du, nahi bat euskal internauten baitan, komunikazio eredu emankor bat panorama soziolinguistiko konplexu honetan. **Zuzeun, formatua bera da originala.** Elkarreragina hedabide oro bilatu nahiean dabiden elementua da, desiratua eta zaila eskuratzen. Zuzeuko formatuak elkarreraginean asmatu du, **genero informazional eta pertsuasibo baten hibridazio bati esker zuzeulariaren eta bisitariaren parte-hartzea bereganatu ditu.** Albistari horizontala hau, sortu eta zazpi hilabetera berdiseinatu zuten, iruzkinak egitea erraztuz eta honela elkarreragiteko estrategian asmatuz. Iruzkina erraz, arin, anonimoki eta helbide elektronikoa bakarrik jarrita egin ahal izatea positiboki baloratzen dute Zuzeuko erabiltzaileek, beste agerkarietan ez omen da hain erraza. Hala ere, lehen esan bezala, Zuzeun benetako izenak jartzea gomendatzen da iruzkina bera aberasten duelako, eta horrela komunikazio elkarreragilea.

### 3.4. Kolore korporatiboa eta logoa

Zuzeuko kolore korporatiboak zuria eta urdina dira, urdin turkesa. Atentzioa deitzen du batez ere urdinak, atariarekin errez erlazionatzeko pentsatua.



Logoa ere sinplea baina gogoraerraza da. Urdinaren barruan "Z" bat du, edo bestela ikusita, bi triangelu urdin zuriaren ertzetan. Kasu gehienetan "zuzeu albistaria" jartzen dute logoaren alboan, logotipoa atariarekin eta bere izaerarekin lotzeko egokia delarik.

Hitz horiek oso adierazgarriak dira gainera, "Zuzeu albistaria". Erraz antzematen da albistari baten aurrean zaudela, informazioa bilatuko duzun webgune bat dela, eta albistari hori seguruenik horizontala izango dela "Zuzeu" marka duelako, edukiak sortzeko aukera eman dezakeelarik.



## 4. Testu dimentsioa

### 4.1. Testu prozesamendua eta erreperitorioa

Edukiaren kokapen estrategikorik gabe, ordena ulergarrik ez duen atarian, erabiltzailea eroso sentitzea zaila da, eta bertan behera geratuko dira printzipioak, helburuak eta egindako lanak. Zuzeu ez da horren adibide.

Zuzeu *interface* eta diseinu erabilerrazak biltzen dituen agerkaria da. Erabiltzaileak erraz antzematen du zer egin behar duen bertan sartzen denean. Beren-beregi interneterako pentsatutako proiektua dela antzematen da, eta ez paperetik eratorriko atari bat.

Albisterik nabarmenenak lehen orrian (edo orri nagusia; horrela esaten zaio baina azken finean nodo printzipaleko ezkerreko aldean dago kokatuta, ezkerretik eskubira kasik pantaila erdia hartzen duelarik) jartzen dituzte begiraleek. Begirale, *zuzeulari* eta *gugeulari*ek argitaratzeko moduan bidaltzen dituzten albiste horietatik batzuk aukeratu eta orri nagusia esaten zaion horretan jartzen dira. Besteak erdiko taulara joango dira.

Hona hemen, Zuzeuko nodo nagusia iruditan (2011/02/25):



Goian publizitatea, biziraupenerako ezinbestekoa. Behean Zuzeun izena emateko eta sartzeko aukerak ematen dira. Beherago, nodo desberdinetara eramaten duten erremintak ikusten ditugu zazpi atal nagusitan banatzen den barra nagusian. *Albisteak*, gaika banatuta. *Zuzeulari*, *gugeulari* eta begiraleek egindako albisteak agertzen dira. Hurrengoa *Hitzorduak*: erabiltzaileek publikatutako agenda moduko bat da. Kultur arloarekin interesatuta dagoenarentzat batez ere, tresna interesgarria. *Trepetak*: Hemen aukera desberdinak biltzen dira. Zure blogeko albisteak publikatzeko lekua da, artxibo astunak biltzekoa ere bai, atzerriko albisteak ere bertan biltzen dira eta gai berezi batzuri buruzko informazioa (euskara eta internet e.a.) ere aurkitu daiteke. *Bideoak*: Bideo euskarriarentzat espreski egindako tokia da. Albisteetatik ateratako bideoak dira, eta aukera ematen du nodo horretan bideoa ikusteko edo beste nodo batean albiste osoa irakurtzeko. *Argazkiak*: Irudi euskarriari eskainitako nodoa da, eta bideoaren

funtzionamendu berbera du. *Zuzeulariak*: Zuzeulari guztiak ikusteko aukera eman du. *Nire Zuzeu*: Zure orrialdea diseinatu eta kudeatzeko aukera ematen du sare sozial baten antzera. *Zuzeularien* artean, jarraitzaile eta jarraituen arteko komunikazioa bideratzen da. Gero, jarraitzen dituzuzn horiek zerbait publikatzean zure "horma"-n ikusi ahal izango duzu eta alderantziz, zuk publikatzean eurak ikusiko dute euren hormetan.

Horren azpian hau aurkitzen dugu:

Sarrera berri guztiak erdiko taulan jartzen dira Zuzeun. Erredakzio taldekoek hortik batzuk aukeratu eta ezkerreko aldean jarriko dituzte, orrialde nagusian. Iruditan EITBri buruzko albistea agertzen da orrialde nagusia esaten zaion horretan, "A.Osinalde"k sinatua. Eskubian "BERO-BERO" izeneko atala ikusten dugu, **esteken bidez informazioa konpartitzeko elementua da.**

Goiko irudi horretan ikusten ditugu orrialde nagusia (irudiaren ezkerrean), azken iruzkinak biltzen dituen koadroa (erdian) eta esteken koadroa (eskuinean). Iruzkinen koadroa oso erabilgarria da, iruzkin hori zein albistetan egin den ikusi daitekeelako eta zuzenean albiste horretara jo iritzia emateko. Bestalde, erabiltzaileen kezka zeintzuk diren jakiteko balio du. Zein arlok kezkatzen dituen alegia.



Zuzeulari eta gugeularien taulak izena eman duten erabiltzaile guztiak ikusteko aukera ematen du. Hauen jarraipena egin dezakezu gainera, euren publikazioen berri izateko.



Twitterreko iruzkinen taula da goian ikusten dena. #zuka hastaga erabilia, twitterreko mezua Zuzeun agertzen da, goiko taula horretan.

Behean ikusi daitekeen koadro horretara pasatzen dira orrialde nagusian jarri eta ordezkatzeko joaten diren albisteak. Kontuan izan Zuzeun zazpi albiste inguru publikatzen direla egunean. Koadro horretan dauden albisteak aurreko egunekoak izaten dira normalean. Horren azpian, letra txikiz eta azpimarratuta ikusi daitezke erabilera

baldintzetara, harremanetarako datuetara eta zuzeu zer den azaltzen duten datuetara eramaten duten estekak. **Behean eskubian, Creative Commons lizentzia eta bazkide teknologikoa (hosting guebs) agertzen dira.**



The screenshot shows a website layout with five content cards. Each card has a small image at the top and a text block below it. The cards are:

- 1. Image: A sign that says "Zabali". Text: "Gasteizen zerbitzuak euskaraz?"
- 2. Image: A man in a suit. Text: "Zein da Patxi Lopezen papera gatazka konpontzeko ibilbidean?"
- 3. Image: A poster for a demonstration. Text: "Elkartasun astea, elkartasun uholdea"
- 4. Image: A close-up of a person's mouth. Text: "Udal hizkuntza-politiken 2. neurketaren aurkezpena"
- 5. Image: A logo with the text "EUSKAL ONDAREA" and "ERABILTZA ARRI". Text: "Aurki itxiko da Gipuzkoa2.0 diru laguntzen inguruko eztabaida irekia"

At the bottom of the screenshot, there is a navigation bar with links: "Zer da Zuzeu?", "Harremana", "Erabilera baldintzak". On the right, there are icons for "Lizentzia: (cc) BY-SA" and "Bazkide teknologikoa: Hosting Guebs".

#### 4.2. Testua eta elementu grafikoa

Atal desberdinen banaketa argia eta diseinu egokia batuta, atari erabilerraza bihurtu da Zuzeu. Erabiltzaileak eskertzen duen arloa da gainera, *interface* egokiak erabiltzailea erakartzen baitu. Atariaren funtzio bakoitza taula batean biltzen da, eta erraz antzematen da taula horien esanahia, erabiltzailearen nabigazio erraz eta eroso lortze aldera. Hiru zutabe nagusitan banatzen da Zuzeu, eta zutabe bakoitzaren egitekoa errez ulertzen da. Hobekuntza txiki bat egitekotan, "zer egin nahi duzu" jartzen duen taula horretan (goian, eskubiko aldean dagoena) egingo nuke. Erabiltzailea bere izenarekin atarian sartzen denean egiten zaion galdera da. Galdera hau taula batean agertzen da, eta hau zabaltzean diseinu kaxkarreko beste taula bat zabaltzen zaigu behean. Letra txikiz, eta txuribeltzean. Kokapenez ondo dagoela uste dut, baina nabarmendu egin behar da nolabait, kolorea, letra tamaina eta estiloa, eta diseinua aldatuta agian. Gainera, kazetaria erabiltzailea den atari batean, eta berez, erabiltzaile horrek egiten duenak garrantzi handia duenez, diseinu aldetik ere hori antzeman behar da.

#### 4.3. Zuzeu eta sare sozialak

Zuzeuk sare sozial baten funtzionamedua izan nahi du. Euskaldunak saretzeko egitasmo bat da, baina euskaldunak beste plataforma batzuk ere erabiltzen ditu, garrantzitsuenak seguruaski *facebook* eta *twitter*, eta Zuzeuk ez die horiei uko egin nahi. Elkarreagin handia ematen da gainera *twitter* eta *facebook* bezalako sare sozialen eta Zuzueuren artean. Zuzeuk dagoeneko 728 lagun ditu *facebook*en eta 820 *twitter*ren. Zuzueun publikatzen diren albiste guztien berri jaso dezakezu sare sozial hauetan, eta bertatik Zuzueura jo zuzenean jatorrizko albistea irakurtzeko.

## 5. Estiloa

### 5.1. Hizkuntza eredu: erregistroa, hizkuntza-maila eta moldeak

Zuzeun batik bat erabiltzen den euskara, euskara batu estandarra dela esan dezakegu, ez oso loratua, ez konplikatua, ez maila oso jasokoa; euskara batua ulertzen duen edozein euskaldunek ulertzeko modukoa. Hizkuntza maila ez da oso jaso, ezta oso kolokiala ere, tarteka bakarrik ematen dira halako kasuak, eta batik bat albisteen iruzkinetan.

Begirale taldeak publikatzen dituen albistek ere ildo honetakoak dira. Euskara estandarra erabiltzen dute, eta euskal hartzaileentzat ulergarria.

Euskalkietako formak agertu direnean ere, iruzkinen bitartez izan da batik bat; oso gutxitan *zuzeulariaren* albisteetan. *Zuzeularien* publikazioetan bilaturiko euskalkietako formak zertzeladen bitartez izan dira gainera, ez dut testurik aurkitu oso-osorik euskalkian idatzita dagoenik.

### 5.2. Errepertorio irekia: testualtasun heterogeneoa eta kalitatea

Zuzeun euskaraz idatzi behar da, ez da esaten zein euskara izan behar duen. Parte-hartzea libre da baina euskaraz, komuniare euskalduna indartzeko. Zuzeuk egiten dituen albistek (erredakzio taldeak) euskara estandarrean egiten ditu.

Testu guztiek galbahea pasatzen dute, batzuk arbelean (edo lehen orria esaten zaiona) jartzen dira eta besteak ez. Kalitatearen kontrolaz lotuta dago beraz, eta Zuzeu izango da azkenean erabakiak hartuko dituen. Zuzeuk badu ahalmena, egoki irizten ez zaiona jakitera emateko, eta albiste bat desegokia iriztekotan, hala egingo luke, dela hizkuntza mailarengatik edo beste edozergatik.

### 5.3. Hizkuntza-ereduaren egokitasuna

Dударик gabe, Zuzeuren oinarria dira partehartzea eta hizkuntza. Euskaraz, formatu honetan, informazioa tratatu eta komunitate bati helaraztea gauza berria da, eta honetan datza Zuzeuren arrakastak. Publiko zabalarengana heltzeko, ezinbestean, euskara estandarra erabili behar izan da, eta honenbestez, esan dezakegu, hizkuntza eredu egokia dela. Hizkuntza-maila desberdinak jorratzeak ere, publiko zabal batengana iristeko aukera ematen dio, inori aterik itxi gabe.

#### 5.4. Ezarpen/garapen linguistikoa formatu berrietan

Zuzeu informazioa euskaraz partekatzeko lekua da, baina informazioari beste buelta bat emanez informazio pertsonalizatua emateko egitasmoa. Dela izenez, dela izengoitiz, albistea harek eta bestek egiten dute. **Horrela, ohiko hedabideen homegeneotasun informazionalarekin apurtzen da, estilo ez bertikal eta emankorra sortuz.**

Diglosi egoeran dagoen hizkuntza honek behar ditu esparru berriak eskuratu eta eredu berriak landu. Internet denbora gutxian asko hazi den esparrua da, eta partehartzea berebiziko garrantzia hartzen ari da esparru horretan. Erabiltzaile euskalduna euskaraz kontsumitzera ohitu behar da interneten; ez dezatela esan beste kasu batzuetan bezala “euskarak ez du balio... egiteko”. Baliatu dezagun euskara eta moldatu interneteko kontsumora. Bide horretan, Zuzeuren eredu azpimarragarria da. Erabiltzailearen esku dagoelako erregistro osoa. Dela euskalkia edo estandarra, dela kaleko hizkuntza edo jaso. Dinamika partehartzaile zabalaren eredu da, gauzak ondo, gaizki eta erdipurdika egin eta sare batean erantzunak jasoko dituen sare-sozial bat, etengabe saretzen ari dena.

Erabiltzailearen hizkuntza gaitasunean lagundu dezakeen agerkaria da Zuzeu. Lagun diezaiolako euskara ikasten eta dakiena hobetzen, ondo dagoena eta ez dagoena antzeman et zuzentzen. Eta mundu ikuskera desberdin bat ere eman diezaiolako, besteen kezkek ezagutu eta komunikazio emankorra sortuz.

Euskarak interneten presentzia izan behar duela esaten da, bere lekua egin behar duela euskaldunek hara jo dezaten. Euskara estandarra eta euskalkia biltzen dituen internet, zabala eta anitza, internauta euskaldunaren nahiak betetzera datorrena, nola erregistro aldetik eta baita aniztasunaren aldetik ere.

## **BIBLIOGRAFIA**

HPS. (2008). *Euskara Hedabideetan*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritza. (2008). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa*. Gasteiz.

Arana,E & Amezaga,J & Azpillaga,P. *Euskarazko hedabideak*. EHU.

HPS. (2008). *XX. Mende Hasierarako Hizkuntza Politikaren Oinarriak*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

